



SEASKAREN 2014-15 NORABIDEAK

LANARI LOT !

0. Sar Hitza

Hendaian hasi zenak Beskoitzen ukan zuen segida eta ondotik Hazparneko lurraldean barna hedatu ziren Suprefeta eta Prefetaren mehatsuak. Baina erasoan aitzinean beldurtu gabe, urte luzetan eraiki dugun ikastolen Etxea defendatzen jakin dugu, mobilizatuz eta elkartasunez, indartsuago jalgitzen gara gatazka honetatik, tokiko hautetsi eta egituren babesarekin.

Azkenean, Estatuko ordezkariak beren xedeetan gibel egin behar izan dute. Beskoitzeko auzia kendu dute. Prefetaren zirkularrak murgiltze ereduarendako legearen eskaerari erantzuten ez badio ere, eta lehenago ziren debekuak orotarazten baditu ere, eskaintzen dituen bide berriak baliatzen jakinen dugu. Hemendik aitzina eraikuntza eta lur publikoen erabilpena ofizialki baimendua izanen da, CLSH edo antzeko egituren gibelean gorde behar izan gabe. Hori baino gehiago, erakunde publikoek beren egoitza zaharretan lanak egiten ahalko dituzte gure esku uzteko gisan.

Hurbiletik zaindu beharko dugu afera, hala ere, orain arte urririk genituen lokalak hala segi dezaten, eta ondorengoak alokairu sinboliko batean gelditu daitezten.

Zirkular gehiago izan da lehenago ere. Lehen bezala orain ere, eraikuntza berriak egiteko ez dugu lege babesik. Eta lehen bezala, orain ere, eraikuntza berriak beharko ditugun kasuetan legearen mugan dantzan ibili beharko dugu, tokiko hautetsien laguntzarekin.

Prefeta eta suprefetaren helburua erakunde publikoen laguntzarik ez gehiago ukaitea eta ikastolek ez haur gehiago errezibitzea, euskara bizirik ikusteko dugun azken esperantza itzaltzea baldin bazen ere, ez du lortu.

Heldu den irailetik goiti, aurten baino 200 ikasle gehiago izanen ditugu ikastoletan, 3 200 ikasleen heina gaingiduz.

Ikasle horiek euskaldun izan daitezten, baldintza egokietan lan egitea da gure xede bakarra. Horretarako murgiltze ereduaren eta euskararen aldeko lege bat lortzeko lanean segitu beharko dugu ikasturte berrian ere.

Ikasturte berria eskola erritmo aldaketak ere markatuko du. Eskola publikoekin batera 4 egun t'erdiko atera pasatuko gara, eta herriko etxeek eta herri elkargoek behar berriei erantzuteko zein laguntza emanen duten ikusteko dago. Seaska mailan beti izan dugun ikastolen arteko elkartasun xedearekin bateginik, laguntza gutien eskuratuko duten ikastolen laguntzeko diru poltsa bat sortzea proposatua da aurtengo aurrekonduan.

Bestalde, azken hiru urteetan Jaularitzaren laguntzarik ez dugunez eraikuntzendako, Ikastolen Egoitzak zailtasunak izanen ditu behar guzietan erantzuteko. Ikastolen beharrak eta ahalak hobeki uztartzeko, gogoeta baten beharra ageri da.

1. Garapena

1.1: Ikastola Berriak

1.1.1: Lehen mailak :

Suprefeta eta Prefetaren erasoek azken urteetako ikastola berrien idekitze erritmoa hautsi digute. 2014ko irailean beraz ez dugu ikastola berririk idekiko. Dinamika hori berriz abiatu beharko dugu ikasturte honetan hainbat lekutan beharrak ageri baitira. Ikastolak herritarrengatik hurbiltzeak eragin baitu azken urteetako hazkunde handia. Hala ere, hainbat ikastoletan udako lan handiak egin beharko dira haur emendaketari aitzin egiteko.

Bizkitartean ikastola tipiak garatuz doaz. Itsasun (4. urtea), Alozen (5. urtea), Arberoan (5. urtea), Lekornen (3. urtea) eta Baigorri (3. urtea) maila berriak idekiko ditugu, Beskoitze eta Ziburuko ama ikastolak garatzeaz gain, Bidarten 1. urtea.

1.1.2 : Bigarren mailak :

Azken urteotan lizeoa lehentasuna bilakatu da, eta egin lanak fruituak eman ditu. 2012ko irailean 168 ikasle baziren Etxeparen, 2013an 195 eta heldu den irailean 220 ikasletik goiti. Ama ikastola, lehen maila eta kolegioetan dugun garapena konduan izanik ondoko urteetan 500 ikasle arte izanen dira lizeotarrak. Horretarako Miarritzeko lizeo berria ezinbestekoa dugu, arlo profesionala garatuz.

Miarritzen lanak hasteko joan den martxotik dena prest baldin badugu ere (Akitaniaren sosa eta arkitekto lanak), Miarritzeko herriko etxeak gure esku utziko duen lursaila uste baino berantago eskuraturik, aitzinikusi ez ziren luzapen administraboak sortu ditu. Beraz lehen lanak 2015ean hasiko genituzke.

1.2: Komunikazioa

1.2.1 : Ekitaldiak

Aitzineko urteetan egin den bezala ate idekitzeen kanpaina arrakastatsurekin segituko dugu. Olentzero Parken hirugarren edizioak arrakasta polita ukan du eta segituko dugu Ikastolen Elkarteko animatzaileen laguntzaz. Glisseguna Kostaldeko hitzordu nagusien artean kokatzea lortu dugu.

Gisa berean, aitzineko urteetan bezala futbol partidak antolatzeke aukera gertatzen bada, hala egingen dugu Erreala edo Athleticekin, nahiz eta aurten biak European izanen diren eta biziki biziki zaila izanen den, biziki hartuak baitira.

1.2.2 : Seaska.net

EHLren laguntzarekin Seaska.net ataria berritu dugu, baina intraneta berriz martxan ezartzekoa dugu.

2. Barne araudia

Barne araudia berritu beharra aspaldian darabilgun leloa da. Joan den otsailean egin zen Ikastolen Kontseilu berezian bozken arloa lehenbailehen zehaztu beharra agertu zen. Horra beraz lehen proposamen bat. Barne Araudiaren gainerateko arloen aldaketak 14/15 ikasturtean segituko ditugu lantzen. (*ikus dokumentu erantsia*)

3. Euskara

- Baxoa euskaraz

2012ko Baxoan Matematiken ikasgaia euskaraz izatea lortu genuen. Geroztik ez da aitzinamendurik izan. 2015eko ekainean gutienez irakasgai bat gehiago euskaraz egin dadin lortu behar dugu.

- Hizkuntz legea.

Eurokarta hitzeman ziguten, hizkuntzen lege bat hitzematzen digute, hori hurbiletik segitu beharko.

2013-14ean Euskararen inguruko norabide ezberdinak hartu genituen gure hezkuntzak duen eskalduntze xedea eta euskarazko murgiltzea indartzeko asmoz. Orain arte eramandako gogoeta eta lanen segitzea izango dugu helburu :

- Euskara xarta : *ikastolako arlo ezberdinetan, hizkuntzarekiko norabide zehatzak, hauen adierazleak eta hezkuntza komunitatearen zereginak finkatzen dituen testua genuke hau (2013-14ko norabidea).*
Testua ikastolen eztabaida eta bozkara eramango da abenduko Ikastolen kontseilu kari eta behin ofizial eginez gero, honen gauzatzeari lotuko gintezke.
- Ikasleek Euskal Herriaz duten ezagutza hobetu : *ahal den guziz eta ahal den gai gehienetan euskal erreferentzien ezagutza uztartu (historia, geografia, literatura, arte, zientzia ... arloetako erreferentziak identifikatuz eta hautatuz) (2013-14ko norabidea).*
Lehen gogoetak eraman badira ikastetxetan, eskas da denen artean eta gaika erreferentzien hautatze, banatze eta ofizial egitea Seaska mailan. Horretarako, gai batetik hasiz proposatuko da Historia-Geografiako irakasleei lan talde batean lan honen eramatea Seaskako hezkuntza taldearen ardurapean.
- Euskara ikasgaiaren programa bigarren mailarako : *Kolegioko ikasbidean, seigarrenetik hirugarrenenerako euskara progresioa berraztertu eta koherentzian eman, bera izan dadin hiru kolegioetan. Hau egiterakoan, finkatuko diren kompetentzi komunikatiboak alderatu europar erreferentzialeko B2 mailakoei. Gure ikasleak, lizeoko lehenean, EGA (C1 maila) gainditzeko parada dute. Aldiz, orientazioa dela eta, hirugarrenaren ondotik ikasle batzuk gure saretik ateratzen dira duten euskara mailaren frogarik eskuratu gabe. Kolegio garaiko euskara progresioa berdefinitzerakoan aztertuko da ere hirugarreneko ikasle guzietan B2 mailako frogen pasarazteko aukera (2013-14ko norabidea).*

Proposatuko da gure euskara irakaslez eta hizkuntza adituez osatutako lan taldeak eraman dezan lana hau Seaskako hezkuntza taldearen ardurapean.

Hirugarreneko ikasle guziei B2 mailako frogen pasarazteko aukera; doakion ziurtagiria eskuratzeko helburuarekin alde batera utzi genuen; euskara programa berdefinitu bitartean. Seaska Hezkuntza Ministerioa eta EEPekin izenpetu hitzarmenaren bidez, gure ikasleen hizkuntz gaitasunen neurtzera engaiatuak girenez 2013-14ean lehen aldiko Ikuskarrizak eraiki eta bideratu B1 mailako euskara frogak 5.eko ikasle pasarazi dira. Ber bidetik, ikuskaritzaren xedea da B2 mailako euskara forgen eraikitzea eta pasaraztea 2014-15ean 3.eko ikasle guziei.

- Irakasle batzuen euskara maila aztertu eta hobetu : *Ziburuko Piarres Larzabal kolegioko profesionalek galdeginik, irakasle batzuen euskara-ezagutza aztertuko eta landuko da, norberaren beharren arabera eta Euskaltzaindiaren arauen arabera (2013-14ko norabidea).*

Pentsatu bagenuen Euskaraz Biziko lankideak erantzun zezakeela eskaera honi, baina lan denbora erdiarekin ezinezkoa izan da. Geroztik galdea emendatu da ere beste ikastetxeegandik. Urtean zehar, formakuntza jarraikiaren bidez AEK-rekin batera nahiko duten irakasle formakuntza zehatzak proposatuko zaizkie.

- Euskaraz Bizi – Guraso komisioak :

Euskara Xarta hitzarmena dela-eta, esku-hartze berezia egingen da Euskaraz Bizi buraso-komisioei begira. Ikastoletan eta horien ingurunean euskararen presentzia garatzeko hizkuntza-proiektuak plantan emanen direla-eta, formazio-saioak antolatuko dira EB burasoentzat, 2014-15 ikasturte hasieran: soziolinguistikako oinarri teoriko batzuk ematea, euskarari buruzko jarrera baikorrak indibidualki zein kolektiboki sustatzea, eta hizkuntza-politiken irizpide nagusiak finkatzea izanen dira xede nagusiak. Formazio-sorta Seaskatik emanen da, urririk, EHI-ren eta Topagunea euskara elkarten federazioaren aholkularitzak lagundurik.

4. Inklusioa

2013-14 ikasturtean gogoeta abiatua izan bada ere, ikertu beharko da sakonki Ziburuko kolegioan IEP gela baten beharra eta egingarritasuna, honen eskaera 2015ko sartzeko Ikuskaritzari egiteko gisan. Ber denboran, IEP egituraren proiektua kolegioko hezkuntza taldearekin eta administrazio kontseiluarekin batera landu beharko da.

Haur integratuen ikasgeletan inklusioko aholkulariek prebentzio saioak antolatzen dituzten gisan, ezberdintasuna eta aniztasuna lantzearen beharra ikusten da molde orokorrean ikasle guzietan, gela guzietan. Horrela irakatsiko litzaieke beren bizian bestea onartzen bere ezberdintasunekin, elkarbizitzarako osagai den gaitasun hau garatuz. Horretarako proposatuko dira formakuntzak irakasle eta hezitzaileei gure praktiketan garatzeko “eskola inklusiboaren” ikuspegia.

5. Programak

2013-14 ikasturtean abiatu dugu Orekaz proiektuaren hedatzea lehen mailako irakasle eta laguntzaileeri. Orekaz proiektu honen berezitasuna da ordu arte Seaskatik eskaintzen ziren proiektu ezberdinak (Xiba, Bertsu, Euskaraz bizi (ikasleentzat) eta Elkarbizitza) uztartzea bai eta irakasle eta laguntzaileak partaideak bilakatzea ere. Goizegi bada ere norabide hauen idazteko orduan bilan oso baten ukaiteko, lehen inpresioak gazigozoak dirudite. Alde batetik proiektuak berak sakontze beharra bailuke hobeki uztartzeko proiektuen artikulatzea. Bestetik hobeki azaldu behar ditugu proiektu honek dituen helburuak, funtsezkoak baititu Seaskako eta irakasleen arteko elkarlana eta partaidetza. 2014-15ko urtean proiektua zehaztea izanen da bereziki hezkuntza taldearen zeregina.

6. Pedagogi kontseilua

Abenduko Ikastolen kontseiluan eztabaidatu ondoren, Euskara xartarekin batera, Elkarbizitza txostena bozetara emango da.

2014/2015 ikasturtean, beharren arabera, pedagogi kontseilua bilduko da 4 egun eterdiko erritmoen inguruko elkartrukatze eta segipenerako.

7. Pedagogi egunak

Lehen mailetan, 2013-14ean Pedagogi integratzailearen ezagutzan eman urratsetatik aitzina segituko dugu aurten, ahalik eta irakasle gehienek esperimenta dezaten konpetentzien bidezko hezkuntzarako pedagogi honen interesa.

Bigarren mailetan, Pedagogi integratzailea momentuz bazter utzirik, hezkuntza egitasmoari lotu ginen aztertuz honen helburuak : zer nolako hezkuntza eman nahi diegu ikasleei. Arlo bat hautatua izan da eta lau ikastetxeek engaiamendua hartu dute 2013-14ean ikasleen euskarazko ahozkotasan gaitasunen garatzea “gela/kurtso orduetan”; barne gogoetak eginez eta hobetze/indartze egintzak martxan emanez. Lau ikastetxeetan egindakoa trukatzeko eta baloratzeko xedearekin 2014ko pedagogi egunean. Ezin izan denez trukaketa eta baloratzetik egin; pedagogi eguna baliatu da geletako praktiken azterketa egiteko beti ikasleen ahozkotasanaren sustatzeko ikusputuan oinarrituz. EHI-ko hizkuntzen proiektuaren ekarpena ere ekarri da pedagogi egunera. 2014-15ko pedagogi egunean gai berari lotuko girenez erraiteko goizegi da. Irakasleek beharko dute erran prest ote diren azken pedagogi egunean azpimarratu bi norantza hauei lotzeko :

“Ikasleen euskarazko ahozkotasa sustatzeko” :

- Ez ikasle muturik geletan
- Ikasleen ahozkotasa erronka kolektiboa denez, ikastetxe mailakoa denez, erantzunak ere kolektiboa izan behar du

8. Irakasle berrien formakuntza

Urte honetan, lehen mailako erritmo aldaketaren ondorioz berrikusi beharra da gure formakuntzen antolaketa, orain arteko asteazken goizen ordezkari berriak beharko baitira saioak.

2013-14tik lehen mailako irakasleen “Professeur des Ecoles” lehiaketa (berriz) aldatu denez, konkurtso berri honi egokituko da gure prestaketa.

Irakasleen titularizazio bideak :

Lehen mailan, Seaskako urte bateko barne formakuntza gaindituz geroz, irakasleak Hezkunde Ministeritzako konkurtso ezberdinetan aurkez daitezke eta horretarako formakuntza eskainzen zaie. Hala ere, barne bide horretatik titularizatzen den irakasle kopurua ez da aski, azken urte hauetan HNtik lortu postu berri eta erretiratu joaten direnen postu hutsak betetzeko. Gaur egun postu asko titular gabekoak ditugu. (2013-14ean 126.5 postuetatik 31.25). 2007 arte Seaskan sartzeko “kanpoko” bidea baizik ez da erabili, irakasleak postuetan izan aitzin formatuz eta konkurtsora aurkeztuz. Ondotik eta gaur arte bakarrik “barneko” bidea da erabiltzen, irakasleek behar dute ordezkari postuetan izan konkurtsora aurkezteko. Egoera ikusiz, ikastoletako taldeen egonkortasuna sustatzeko, landuko da epe batez bederen egoera zuzendu arte, barne eta kanpoko bideen erabiltzea. Zainduz postuetan dauden ordezkariak titularitzatzeko eta postu batetaz jabetzeko duten aukera.

Bigarren maila, gaur arte ordezkariak 3 urteko Seaskako barne formakuntza gainditu ondoren eta beren gaian postu batetaz jabetu ondoren, irekitzen zaie HNeko konkurtso bidea irakasleri. Egoera ezberdina da gaien arabera eta postu hutsak ez dira lehen mailakoak bezain beste. Hala ere, ahalik eta gehien irakasleen egoera / formakuntza hobetzeko xedearekin, gure barne formakuntza 3 urtekoa izan ordezkari 2 urtekoa izan dadin berrikusiko da. Gisa berean, lehen urtea gaindituz geroz, eta bere gaian postu hutsa badago, bigarren urtetik HNeko konkurtso bidea irekitzeko parada izanen da.